

3. BEZEROEKIN HARREMANA

Gure bezeroekin harremana mota desberdinetakoa izango da, pertsonala nahiz digitala. Harremana pertsonala denean ere mota askotakoa izango da, esaterako, ahoz ahokoa, bilera pertsonalen bidezkoa, arreta indibidualizatua... bezeroek aukeratu ahal izango dute. Horretarako alde zuretik, webgunean izango dugun telefonora deituko dute, eta bertan tokia eta ordua erabakiko da, hitzordu bat izateko.



Harreman digitalean, aldiz, Instagram bidez, WhatsApp bidez, Gmail bidez... komunikatu ahal izango gara. Honetarako, webgunean izango dituzte gurekin harremanetan jartzeko baliabideak eskuragarri, nahi dutenean idatzi ahal izateko.

1. irudia

Horrez gain, Instagramean ere nahiko informazio izango dugu eskuragarri, gure ludotekaren funtzionamenduen inguruan jakiteko, egingo diren ekintzak, kuotak, ordutegiak.... Informazio hau emateaz gain, bertan argi adierazten da, ludotekara bertara joan behar dela beraien haurrak ludotekan matrikulatzeko.

Jarduera batzuetan gurasoen parte-hartzea sustatzen da, eta horrela, beraiekin harremana mantenduko da. Horrez gain, beraien seme-alabak ludotekan nola dabilzan jakiteko, bilerak hilabetean behin egingo dira, baina gehiago egin nahi izanez gero, aukera emango zaie.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

IRUDIA

1. irudia → *Умный Зайка*. (s/f). Pinterest. berreskuratua 2026eko urtarrilak 9
<https://es.pinterest.com/pin/34691859628040139/>